



Venus ez zen jaio Willendorfen



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Willendorf (Austria), 1908. Wachau bailarako aztarnategi batean, Josef Szombathy arkeologoak emakumezko baten estatua antropomorfo txiki bat aurkitu zuen, 11 cm ingurukoa, harrian zizelkatua eta okre gorritz tindatua.

Orduz geroztik, Paleolitoko venusik ezagunena da, eta kanpotik behin eta berriro aztertu dute. Hala ere, oso gutxi dakigu bere jatorriaz, egiteko erabili zuten metodoaz edo esanahiaz. Horregatik, amaitu berri den urtean, Vienako Unibertsitateko eta hiri bereko Historia Naturaleko Museoko ikerlariiek barrutik aztertu dute, metodo berritzailea erabiliz: mikrotomografia konputerizatua.

Venusa nagusiki oolita izeneko arroka egina dago, eta ikerlariak ateratako lehenengo ondorioa izan da barrualdea ez duela batere uniforme, oolita horrek jatorri anitzeko arroka dituela eta sedimentuak hainbat tamaina eta dentsitateetakoak direla. Gainera, limonitazko sei ale handiago ere identifikatu dituzte, venusak azalean dituen zuloak azalduko lituzketenak. "Limonita gogorrek ziurrenik eztanda egin zuten artista eskulturatxoak zizelkatzen ari zela eta, itxuraz, zuloetako bat aprobetxatu zuen emakumearen zilborra egiteko", ikerlarien ustez. Egileak erabaki egokia hartu zuen xehetasun horretarako eta, oro har, materiala aukeratzeko. Paleolitoko venusak hezurrez edo boliz eginak egon ohi dira, baina Willendorfekoaren egileak oolita zati oso porotsua erabili zuen, lantzeko askoz errazagoa.

UKRAINA ALA ITALIA?

Ikerlan berriak, nagusiki, piezaren ja-



VIENAKO HISTORIA NATURALEKO MUSEOA

torriari buruzko informazioa ekarri du. Venusaren harriaren aleak hainbat jatorriko milaka laginekin alderatuta, lehen ere jakina zena baieztatu zuten: harri hori ez dela Willendorf ingurukoa. Alderaketa prozesuan bi lagin hurbildu ziren materialaren ezaugarrietara. Jatorri posible horietako bat Ukraina ekialdea da, Willendorfetik 1.600 km

ingurura. Errusia hegoaldean Austriakoaren antzekoak diren hainbat venus aurkitu dira, berriagoak diren arren, eta horrek hipotesi hori indartzen du.

Hala ere, hipotesi nagusia bigarren aukera da: eskulturak –edo materialak behintzat– Italia iparraldean du jatorria, Gardako lakuaren inguruan. Puntu hori askoz gertuago dago Austriatik Ukrainakoa baino, baina tartean Alpeak gairitu behar izan zituzten. Aukeretako bat Alpeak inguratu eta Panoniako lautadan zehar Austriara iristea litzateke; bide hau beste ikerlari batzuek deskribatu zuten duela urte batzuk, simulazioak erabilia.

Gardatik Willendorfera iristeko bide laburrena Alpeak zeharkatzea da, baina adituek uste dute oso zaila izango zela duela 30.000 urte glaziarrek estalita mendilerroa onik gairiditzea. Baina bada beste bide laburrago bat, 730 km-koa, Adigio, Eno eta Danubio ibaien haranetatik igarotzen dena. Bidearen zatirik handiena 1.000 metroko altueratik behera egin daiteke eta soilik 35 km tartea dago hortik gora. Adituen ustez, bide hori egitea posible litzateke.

Hipotesiak hipotesi, jatorritik Willendorferako bidea ez zuten segidan egingo; ziurrenik, piezak hainbat belaunaldi behar izan zituzten aurkitu zuten puntura iristeko. Gravette aldiko gizakiek kokaleku egokiak bilatzen zituzten etengabe. Klima aldatzen zenean, harrapakinak urritzen zirenean... beste toki batera joaten ziren, gehienetan ibaien ibilgua aprobetxatuz.

Oraindik ere oso gutxi dakigu Willendorfeko venusari buruz, baina pixka bat gehiago dakigu duela 30.000 urteko gizakien mugikortasunari buruz. ●